

Natxo Matxin Mugeta

Itoizko Koordinakundeko kidea

Itoitz: pertsonak milioien truke

■ Jakin badakigunez Itoizko urte-giairekin zerikusia duten gauzak oro azkar aldatzen direla eta, beraz, zaila dela arazo honen etengabeko jarraipena egitea, Itoizko Koordinakundeari ezinbestekoa irudituko zaio egungo egoera azaltzea eta aipatzea izan daitezkeen jarduerara itzultzea, mobilizazioak batez ere.

Lehenik eta behin, oso argi utzi behar da Entzutegi Nazionalak urtarriaren 24an emandako autoak, hau da, proiektu gelditzeko exijitza gain horretarako milioi askotako fidantza eskatu zuenak, ez duela ekarriko, ezta gutxiagorik ere, Itoitzen aldeko borroka amaitzea. Aski da denboran atzera egitea konturatzeko ez dela lehen aldia, eta baliteke azkena ere ez izatea, garaitutzat hartzen gaituztena eta proiektua behin-betiko burututzat jotzen dutena.

Bigarrenik, korrupzioa agertu da Itoitzen: faktore honek, horrelako herrilarietan kontu berria ez bada ere, argi uzten du zein diren eragileen benetako interesak. Aspaldi da Itoizko Koordinakundea salatzen ari dela urtegiaren kontura ateratzen ari diren ezin konta ahala etekinak, ez bakarrik bere garaian abiatu zutenek, Urralburuk eta Aragonek, baita haien gainetik zeuden kargu publikoek eta proiektuaren lekukoa hartu dutenak ere.

Orain inoiz baino gehiago, Entzutegi Nazionalak berretsi duen bezala legez kontrako proiektua izateaz gain agerian gelditu baita eta frogatu obren arduradunen inplikazio ekonomikoa, Itoitz geldiarazi behar den azpiegitura da.

Aspalditik ari gara zabaltzen mezu hori eta, agian behin eta berrizkoa izateagatik, baliteke antzu eta eginezina iruditzea. Errealitatea, ordea, guztiz bestelakoa da, eta argi eta garbi esan behar da lor daitekeen helburua dela, eta gero eta hurbilago dugula Gobernuak, komunikabideek... jarritako oztopoak gora-behera. Horren froga da gure argudio guztiak egiaztatuta eta urtegia eraikitzearekin eta, beraz, proiektua abiatzearekin ustez lortu nahi zituzten helburuek sinesgarritasuna galdu izana.

Gure borrokaren legitimazioa begien bistakoa da, eta gure lurraldea, hau da, gure ibarrak, gure

Gure borrokaren legitimazioa begien bistakoa da, eta gure lurraldea, hau da, gure ibarrak, gure baliabideak, defenditzeko eskubidea onartu digute. Orain, obrak behin-betiko geldituko baditugu, denoi dagokigu azken ahalegina egitea

baliabideak, defenditzeko eskubidea onartu digute. Orain, obrak behin-betiko geldituko baditugu, denoi dagokigu azken ahalegina egitea.

Kalean ere erakutsi behar dugu, aurrekoetan bezala, Itoizko proiektuaren aurkako oposizioa garrantzitsua eta zabala dela, eta informazio, prestakuntza eta gaitasun hobe duela uraren arazoak konpontzeko, gure ekonomia eta ingurugiroa hipotekatzeko, gure aurrerapena geldiarazteko eta gure baliabideak murrizteko ekarriko ez duten neurriak hartuz.

Are gehiago kontuan hartzen badugu urtegia Nafarroan, Administrazioaren eta horren kontura irauten duten erakundeen manipulazioari esker, guztiz beharrezkoa den eta biztanle gehienak alde dituen proiektu gisa saltu dutela.

Hau gertatu da, alde batetik, ez delako eztabaida argi eta sakonik egin Nafarroan dauden ur beharrei buruz; bestetik, baliabide horren gaineko eskumenik ez dagoelako (Estatuaren esku daude, Konstituzioaren arabera); eta, azkenik, ureztaketari dagokionez nekazaritzan izandako aldaketek buruz informaziorik ez delako izan.

Horregatik, lerroen bitartez, Iratiko ibarra defenditzen hamar urtetik gora daramatzagunok laguntza eta elkartzasuna eskatzen dizugu, eta parte har dezazula gaur, otsailak 17, Iruñean arratsaldeko 17.30etatik aurrera eta Autobus geltokitik abiatuta egingo den manifestaldian. Leioa honako hau izango da: *Korrupziorik ez. Gelditu Itoitz.*

Euskal Herriko herri guztek jakin behar dute zati bat dutela Iratiko ibarrean, eta legez kontrazarritako proiektu baten ondorioz urpean betiko desagertzen ikusi nahi ez badute, beharrezkoa dela hilaren 17an Iruñean egotea. Urtegia eraikitzeko proiektua ezizik Justizia bera ere baitago jokoan, hau da, herritar eta gizarte mugimenduko guztek beren planteamenduak ezagututa eta aplikatuta ikusteko duten eskubidea.

Ezin dugu inola ere onartu diruaren botereak pertsonen askatasuna ordezkatzea. ■

Erredakzioan izuala

Ramon Labaien



Hirurogei urte

Anton Irala, getxotarra, 26 urte zituen 1936ean, lehen eusko gudariak, armak eskuetan zituztela, etsaiari fronte egiten hasiak zirenean. Urte haren urrian, Joxe Antonio Agirre Lehendakariaren idazkari izendatua. Azken igandea huntan hila, Donibane-Lohizumen, 86 urte zituela. Hirurogei urte borrokan bititua eta hirurogei urte berezi Eusko Nazioaren istorioan, baita ere borroka, odolaz, saminez eta itxaropenez beteak. Han ginen bere lagunak, hunenbat abertzalaren hiletak ezagutu dituen eleiza zaharrea. Horrelakoetan badirudi aspaldiko ekintzak berpiztu egiten direla, berriro orai-ko bihurtuz. Gure gudariak, sendo eta zintzo ziren haiek, Bizkaiko mendietan eusten. Orduztik Euskal Herrian loretutako aurrerapen guztien hazi izan ziren gizonak, gaur ahanziak. Gerla hura galdua, desterrua batzuentzat, etsaiaren esku gogorra besteentzat eta Nazioaren etorkizunean itxaropen bat hain bizi eta argia behin ere ez dela izan parekorik Euskal Herrian. Badugu non ikasi gaurko abertzaleek, hauteskunde bezpera diren egun hauetan. Azken gertatu direnkin zikinduak sentitzen garenok eta besteak. Hor goaz berriro sakabanatuak,itsu gisa, bide garbia ezin arkiturik.

Txillardegia



Negarren jatorriaz

Euskal idazle baten lumak idatzitakoa irakurri dut lehengo egunean: herri honen negarren jatorri nagusia ETA da. Ez dut izena esango. Irizti hori, Pactoa dela-ta, modako irizki nagusia ere bilaka baitaiteke aurki. Eta honek lerrotxo labur hauek baino erantzun osoago merezi luke.

Españolistei, eta *halaz* ere Espainiako markoa ontzat ematen dutenei, gure espainiar integrazio hazkorrek ez die batere minik ematen. Baina Estatuan integratu nahi-ez, horrek hiru aldir eman ditu euskaldunak mendira, eskulak eskutan. Eta ETA ere lerro horretan kokatu beharra dago.

Hots: horra hor herri honetara negarririk opa-roenak ekarri dituen gako. Herri honek ez du *España ofiziala* onartzen. Ez gaur, eta ez 1833an. Euskal negarra franko, horretan.

Baina hori *abstraktoegia* delakoan, goazen oroitzen konkretu eta ongi ezagunetara.

Rosa Zarraren heriotzak ez bide du herri honetan negarririk eragin. Senideen autobusa ukabilka eta ostikoka errezibitzeak ere ez. Karmede Galartzaren kasoa berdin bide zaigu. Presoak, bai gartzela barruan bai gartzela aldatetetan, gaiztaginak balira bezala tratatzea, berdin bide zaigu. Lasa eta Zabalaren izugarrikeriak, bost axola. Imanol Lertxundiren kasoa, "aski zukeen etxetik ez lrtetea"...

Eta Ertzainak eta Goardia Zibilak eskuz esku gure gazteen bila ikustea, berdin. Negarririk ez, omen.

Nori zaio berdin? Nork ez du hemen aspaldi honetan negarririk isurtzen? Eta, zergatik?

L A P h I T Z A

